

BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure bezeroekiko harreman zuzena izatea gure oinarrietako bat da, StepDry-ari buruz ahalik eta zalantza gutxien egoteko. Horretarako hainbat komunikazio bide izango ditugu; hots, telefono zenbaki bat, posta elektroniko bat eta hainbat sare sozialak.

Web orrialdea: Gure bezeroekin harreman zuzena gure web orrialdea da, StepDry erosteko bide bat da eta informazio guztia eskaintzen da. Hala ere, zalantzak izanez gero gure webgunean ohiko diren galderak erantzuta egongo dira eta beste zalantzak argitzeko chat publiko bat egongo da galderak egiteko eta nahi duten pertsonak erantzuteko. Bestalde, gure web gunean, gure telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak eskainiko ditugu.

Telefono zenbakia: gure web orrialdean eta sare sozialeko profiletan ageriko da. Zuzeneko komunikazio bat izateko erabilgarria izango da eta telefonoa ahalik eta denbora gehienez libre egoten saiatuko gara, dei gehiagori erantzun ahal izateko.

Zenbakia: +34 943 11 31 48



Posta elektronikoa: gure web orrialdean eta sare sozialeko profiletan ageriko da eta zuzeneko komunikazio bat izateko erabilgarria izango da. Posta gehiago izango da komunikazio formaletarako, esate baterako, StepDryari buruzko informazioa eskatzeko enpresa batenak.

Posta elektronikoa: stepdry@gmail.com



Sare sozialak: Gure produktua ezagutzera emateko erabiliko ditugu eta produktuaren informazioa argi gelditzeko post-ak igoko ditugu, StepDry-aren erabiltzaileak erakartzeko. Gure publikazioetan gure webgunearen esteka eskainiko dugu, StepDry-aren erosketari errazteko.

